



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 19a

66. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario gaituentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kronikoen Planari eta Gizatiartzeko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, seigarren olatua kontrolatze aldera musukoa kanpoaldeetan eta segurtasun-distantzia gorderik ere erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroan COVID-19aren pasaporte erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, ospitalez kanpoko larrialdien eta 112aren berrantolaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Amiantoari buruzko Planeko Departamentuarterko Batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gutxiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gehiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, COVID txertoaz gogorarazteko eta horretarako hitzordua eskaintzeko telefono-deiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Iruñeko gizarte-zerbitzuetako zentroaren balizko finantzaketa aztertzeko eratu den lantaldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

—Galdera, Osasungintzako langileei menperakuntza kimikoaren kasu susmagarriak atzemateko prestakuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario gaituentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario gaituentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148., 152., 153. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario gaituentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Aipatu foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin (10-22/PRO-00013).

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario gaituentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa

HITZAURREA

Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen helburua da egiturazko aldi baterako enpleguaren tasa ehuneko 8tik beherakoa izatea administrazio publikoetan.

Horretarako, beste neurri batzuen artean, lege horretan ezartzen da aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua abiaraziko dela administrazio publiko guztietan, eta bi atal nagusi izanen dituela: alde batetik, legearen 2. artikulua enplegu publikoa egonkortzeko hirugarren prozesu bat baimentzen du, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.Bat.6 artikuluan eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.Bat.9 artikuluan arautu zirenen osagarri, zeinak barnean hartuko baititu 2020ko abenduaren 31 aurreko hiru urteetan, gutxienez, aldi baterako langileek etenik gabe bete dituzten egiturazko lanpostuak, aurrekontu-zuzkidura baldin badute, egon nahiz ez egon lanpostu zerrendetan, plantilletan edo administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeke erabiltzen dituzten bestelako sistemen barnean.

Bestetik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPO-ETB) 61. artikulua 6. eta 7. apartatuetan ezartzen denarekin bat etorritik, seigarren xedapen gehigarrian aurreikusten da deialdia eginen dela, bakarra eta apartekoa, 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak bete eta 2016ko urtarrilaren 1aren aurretik etengabe aldi baterako langileek okupatu dituzten lanpostuak lehiaketa bidez betetzeko.

Horrez gain, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, seigarren xedapen gehigarrian jasotako egonkortze prozesuetako deialdietan sartu behar dira 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako langile bat aldi batez aritu den egiturazko lanpostu hutsak.

Eskumen tituluei dagokienez, azken xedapeneko lehenengoak dio 20/2021 Legea Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuko 7. eta 18. zenbakien babesean ematen dela, horietan Estatuari eskumen eskusiboa ematen baitzaio gai hauetan: lan arloko legeria –ezertan eragotzi gabe autonomia erkidegoetako organoek hura betearaztea–; eta administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak eta haien funtzionarioen estatutu-araubidea.

Halaber legea 149.1.13 artikulua babesean ematen da, hor Estatuari ematen baitzaio eskumena jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriari eta koordinazioari dagokienez.

Hamargarren xedapen gehigarriak ezartzen du, bestalde, legea Nafarroako Foru Komunitateari aplikatuko zaiola Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz.

Azken arau horrek, 46. artikuluan, Nafarroako toki araubidearen arloan duen eskumen historikoa aitortzen du foru araubidearen ardatz nagusien artean. Hala, aipatu manuaren arabera, Nafarroari dagozkio “gaur egun dituen ahalmen eta eskumena, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege Dekretu Itunduan eta bere xedapen osagarrietan erabakitakorenen babesean”, bai eta “aurrekoekin bateragarriak izan eta Estatuko oinarritzko legeriaren arabera autonomia erkidegoei edo probintziei dagozkiekeenak” ere.

Xedapen osagarri horien artean nabarmentzen da Nafarroako Udal Administrazioarako Erregelamendua, 1928ko otsailaren 3koa. Garai batean garrantzi handiko arau multzoa izan zen Foru Komunitateko Toki Administrazioaren araudiaren barnean, eta, besteak beste, Nafarroan araudi propioa bazuten gaien sorta bat biltzen zuen; horietako bat udal idazkariei buruzkoa zen.

Gaur egun, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea da bere 234. artikuluan ezartzen duena ezen, arau orokor gisa, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako eginkizun publikoetan aritzea Foru Komunitateko

Administrazioak ematen duen gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta egonen dela bakar-bakarrik.

Arau beraren 236. artikulua dioenez, halaber, Nafarroako Gobernuan Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio hautatu eta izendatzea foru gaikuntza duten langileei erreserbatutako idazkaritza eta/edo kontu-hartzailetzako eginkizun publiko beharrezkoak bete behar dituzten langileak.

Hain zuzen ere Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileek behin-behinekotasun egoera larria izan dute urteetan, lanpostu horiek funtzionarioek bete ahal ditzaten alde aurretik Nafarroako toki entitateen mapa berregituratu behar delako.

Gainera, foru gaikuntza duten funtzionario apurke duela ia hamar urtetik ezin izan dute merez-mendu lehiaketetan parte hartu foru gaikuntza duten Nafarroako toki entitateetako beste lanpostu batzuetara aldatu ahal izateko, lanpostu hutsak betetzeko araudiaren blokeoaren ondorioz.

Azken hamarkadan ez da inongo hautapen prozesutarako deialdirik egin foru gaikuntza lortzeko oposizio-lehiaketaren bidez, txanda irekian.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma-rako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak, zeinak eskualdea definitu baitzuen Nafarroako toki entitate berri gisa, laugarren xedapen iragankorrean ezartzen du behar diren jarduketak hasi behar direla idazkaritza eta kontu-hartzailetzako lanpostuak funtzionarioek bete ditzaten, eskualdeak sortzeko bosgarren foru legea onetsi eta hiru hilabete epean, eta, betiere, arau horrek indarra hartu eta hiru urteko epea iragan baino lehen.

Oraindik eskualderik sortu ez denez, gaur egun aplikatzekoa den araudiari jarraituz, idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu jakin batzuk soilik bete daitezke funtzionarioekin; gainerakoak toki maparen mende eta udalez gaidiko toki entitate baten sorreraren mende daude.

Arestian aipatutako 4/2019 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak, beraz, kontraesana sortu du 20/2021 Legearen oinarritzko printzipioekin, horrek enplegu publikoan aldibaterakotasuna murriztea baitu xede nagusia. Izan ere, hitzaurrean zuzen adierazten duen bezala, edozein erakundetan beharrezkoa eta zentzuzkoa da halako aldibaterakotasun tasa bat, ez ordea egiturazko aldibaterakotasuna, ia langileen 90eko tasara iritsi dena zenbait sektoretan, besteak beste Nafarroako toki entitateetako idazkari lanpostuetan.

Europar Batasuneko zuzenbideak dioen bezala (Kontseiluak emandako 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentaraua, iraunaldi mugatuko lanari buruzko EGK, UNICE eta CEEPen Esparru Akordioari buruzkoa), kontratazio mugagabeak lan harreman mota ohikoena izan behar du, bi helburu nagusi lortzeko: batetik, iraupen mugatuko lanaren kalitatea hobetzea, diskriminazio ezaren printzipioaren errespetua bermatuta; eta bestetik, iraupen mugatuko hurrenez hurreneko kontratu edo lan-harremanak baliatuz gehiegikeriak egitea eragozteko esparru bat ezartzea.

Hala, esparru akordioaren 4. klausulak aldi baterako langileen eta finkoen arteko parekatzea ezartzen du diskriminazio ezaren printzipioa oinarritzat hartuta, bi langile motek araubide juridiko desberdinak izatea justifikatzen duen arrazoi objektiborik izan ezean.

Bestalde, esparru akordioaren 5. klausulak aurreikusten du aldi baterako izendapenen abusuzko erabilera eragozteko neurriak hartzea. Klausula horrek zuzeneko eraginik ez duen arren, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (hemendik aurrera, EBJA) behin eta berriz esan du epaile nazionalai dagokiela abusua zehaztea, eta zuzenbide nazionalaren esku dagoela konponbide eraginkor eta atzera-eragileak aplikatzea; agintari nazionalak premiatzen ditu atzera eraginen duten neurri eraginkorrak har ditzaten eta, hala behar denean, argi eta garbi zigor dezaten aldibaterakotasunaren abusua.

EBJAren jurisprudentziak azpimarratu egiten du, gainera, aldi baterako langileen eta finkoen araubide juridikoen arteko aldean oinarri bakarra izan behar dela arrazoi objektiboak egotea, frogatzen ahal dutenak desberdintasun horren beharra dagoela helburua lortu ahal izateko.

Testuinguru horretan, Enplegu publikoan aldi baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko 20/2021 Legeak prozedura sail bat ezartzen du zenbait baldintza betetzen dituen aldi baterako enplegua egonkortzeko, eta, horrekin batera, erreformatu egiten du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, neurri eraginkorrak antolatuz, etorkizunean aldibaterakotasunaren abusuari eta iruzurrari aurrea hartzeko eta hura zigortzeko, eta, azkenik, giza baliabideak hobeki kudeatzeko tresnen ezarpena eta plangintzaren kultura sustatuz.

Nafarroak Toki Administrazioaren arloan duen eskumen historikoa baliaturik eta foru lege honen bitartez, hiru helburu lortu behar dira: lehenik, 20/2021 Legea oinarrizkoa denez gero, arau

horretan ezarritako baldintzak betez antolatu behar dira aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu egokiak Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetarako, aldi-baterakotasunaren abusuzko egoera historikoa eta larria jasaten baitute.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da, egonkortze prozesu horien aurretik, foru gaikuntza duten funtzionarioei aukera ematea hutsik dauden lanpostu guztien arteko mugigarritasunerako eskubi-dea baliatzeko, ia hamar urte joan ondoren funtzionario gaituen arteko merezimendu lehiaketaren bidez lanpostuak betetzeko prozesuetarako deialdirik egin gabe.

Horren ildotik, 20/2021 Legeak berariaz adierazten du lanpostuak betetzeko aurretiazko mugikortasunaren edo barne igoeraren mekanismoak bateragarriak izanen direla egonkortze prozesuekin.

Horretarako, foru lege honek funtzionario gaituen mugigarritasuna aurreikusten du lanpostu huts guztien artean, eta ezartzen du, halaber, foru gaikuntza duten funtzionarioen artean lanpostuak betetzeko lehiaketa bereziak amaitzen direnean, foru gaikuntza lortzeko hautapen prozesurako deialdia eginen dela, txanda irekian, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez.

Txanda irekiko deialdi horretan –2012tik eginen den lehena– foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuak izan eta lekualdatze lehiaketa bereziaren xede izanik lehiaketa horretan betetzen ez diren lanpostuak eskainiko dira, ez badaude aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuetan eskaini beharreko lanpostu hutsen zerrendan.

Azkenik, zenbait manu aldatu behar dira bai Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, bai Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean, halako moldez non Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak funtzionarioekin betetzea behin betiko bereiziko baita Nafarroako toki maparen berregituratze administratibotik. Horrela ez da berriz gertatuko bitarte baterako egoerak gehiegi luzatzea, hori Europako zuzenbidearen eta 20/2021 Legearen beraren kontrakoa baita. Lege horretan ezarritako neurriak oinarrizkoak dira eta gure foru araudian txertatu behar dira.

Beharrezkoak diren funtzio publikoak esleituak dituzten lanpostuak funtzionarioekin behin betiko betetzeko bidea baldintzatu edo eteten denean, gorago azaldu den bezala, toki ereduaren aldaketaren mende jarrita, urratu egiten dira Europar

Batasuneko zuzenbidearen eta 20/2021 Legearen beraren oinarriak. Lege hori oinarritzkoa da eta administrazio publiko guztiei aplikatu behar zaizkien printzipio batzuk biltzen ditu.

Kontuan izan behar da aipatu araua eman dela Estatuak administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarrien gain eta haien funtzionarioen estatutu-araubidearen gain duen eskumenaren babesean, eta ildo horretan, Foruaren Hobekuntzaren 49. artikuluan arabera, Nafarroari dago-kiola Foru Komunitateko funtzionarioen estatutu-araubidearen arloko eskumen eskusiboa, Estatu oinarritzko legeriak funtzionario publikoei onartzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuz, betiere.

Hala, bada, foru gaikuntza duten funtzionarioen kolektiboarentzat aldi baterako enplegua egonkortzeko prozedurak antolatzearekin batera, Foru Komunitateari legezko araudi berri bat ematen zaio, bermatzen duena Nafarroako Toki Administrazioan beharrezkoak diren funtzio publikoetan aritzeko erreserbatutako lanpostuak betetzeko eta eskuratzeko sistemaren normalizazioa, egun indarrean dauden lege neurriek berek sortutako egoera desblokeatuz.

Hori guztia egiten da, gainera, 6/1990 Foru Legearen X. tituluan esku hartu gabe, zeren eta, titulu oso horri eta 4/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorrari eutsiz, jarraipena bermatzen baitzaie bai egungo administrazio zerbitzuen batasunei –ordeztuko dituzten eskualdeak eratu arte, kasua denean–, baita 1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetako idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuei, hurrenez hurren, eskualdeak sortzeko foru legeetako bakoitzak indarra hartu arte, aipatu xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera eta 6/1990 Foru Legearen 361.1.e) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Kontuan izan behar da aipatu araudiak dagoeneko aurreikusten duela iraungi beharreko egoera personal gisa irautea, bertan adierazitako baldintzekin, 1.500 bizilagun baino gutxiagoko udaletako idazkari lanpostuek, baldin eta eskualde bakoitza sortzeko foru legeak indarra hartzen duen unean Nafarroako Foru Komunitateak gaitutako funtzionarioek betetzen badituzte lanpostu horiek.

Foru lege honek, helburu horiek lortzeko, bost artikulua eta bi xedapen indargabetzaile biltzen ditu.

Lehenengo artikulua foru gaikuntza duten funtzionarioen arteko lehiaketa berezia arautzen du lanpostuak betetzeko. Hurrengo manuan arautzen

diren hautapen prozesuen aurretik eginen da lehiaketa hori.

Salbuespenezko prozedura da, gaitutako funtzionarioen arteko merezimendu lehiaketaren bidez lanpostuak betetzeko 6/1990 Legearen 247. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den prozedura orokorraz bestelakoa. Hala ere, arau horretako zenbait determinazio aplikatu behar dira foru lege honetan arautu gabeko alderdietan.

Lehiaketa horrek foru gaikuntza duten funtzionarioen mugigarritasuna ahalbidetuko du Nafarroako toki entitateetan hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu guztien artean. Lanpostu hutsen hasierako zerranda –lan publikoaren eskaintzaren pareko figura, foru gaikuntza duten funtzionarioen esparruan– 2022ko ekainaren 1a baino lehen onetsi eta argitaratu behar da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta bertan berriaz adierazi behar da zer lanpostu hutsek betetzen dituzten aldi baterako enplegua egonkortzeko baldintzak, Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoak.

Jarraian, arauaren 2. artikulua ezartzen du bi motatako hautapen prozesuen deialdiak eginen direla, behin amaituta foru gaikuntza duten funtzionarioen arteko lehiaketa bereziak lanpostuak betetzeko. Lehenik, gorago adierazi den moduan, foru gaikuntza lortzeko hautapen prozesua eginen da txanda irekiko deialdian, oposizio-lehiaketaren bidez.

Deialdi horretan, foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta dauden eta lekualdatze lehiaketa bereziaren xede izanik lehiaketa horretan betetzen ez diren lanpostuak eskainiko dira, ez badaude aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuetan eskaini beharreko lanpostu hutsen zerrendan.

Jarraian, B letran, 2. artikulua aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuak arautzen ditu 20/2021 Legearen jarraibideen arabera, oposizio-lehiaketa bidez eginen direnak eta merezimendu lehiaketaren bidez egonkortuak izateko baldintzak betetzen dituztenak bereiziz, eta zenbait xedapen komun ezartzen ditu bi prozesuetarako.

Halaber, 2. artikuluko C letran dauden arauak berdin aplikatzen ahal dira deialdi irekian oposizio-lehiaketaren bidez foru gaikuntza lortzeko hautapen prozesuan zein aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuetan; ildo horretan, nabarmendu behar da prozesu horiek modu paralelo eta koordinatuan eginen direla, eta deialdi

bakarraren bidez edo zenbait deialdiren bidez antolatzen ahalko direla.

Eraginkortasun administratiboarekin lotutako arrazoiengatik, bat etorri Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin, egun berean jabetuko dira lanpostuaz 1. artikuluan aurreikusten diren merezimendu lehiaketa berezietan lanpostua adjudikatzen zaienak eta 2. artikuluko A eta B letretan aurreikusitako hautapen prozesuen ondorioz foru gaikuntza lortzen dutenak.

Ondoren, 3. artikulua aldatu egiten du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247. artikulua 2. apartatua, lege babes emateko, funtzionarioekin bete daitezela, ez bakarrik uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 243.2, 244.2 eta 361.1.e) artikuluetan jasotako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, baizik eta administrazio zerbitzuen batasunetako lanpostu hutsak ere bai, eta 1.500 edo 3.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetakoak, beren plantilla organikoan lanpostu propioak badituzte, bai eta lanpostu espezifikoa dituzten mankomunitateetako kontu-hartzaile lanpostu hutsak ere, aipatu manuan ezarritakoarekin bat.

Aurrekoaren ildo beretik, 4. artikulua 6/1990 Foru Legearen 248. artikulua 1. apartatuko a) letra aldatzen du, horren idazketa 247. artikulua aldaketari egokitzeke.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma-rako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 2.-5. bitarteko apartatuak ere aldatzen dira, interpretazioari eta aplikazioari buruzko zalantzak eragiten zituzten zenbait alderdi argitzeke haien idazketan.

Era berean, legearen gainerakoan ezarritakoarekin bat etorri, arauak bi xedapen indargabetzaile ditu zerikusia dutenak aipatu 4/2019 Foru Legearen laugarren eta bosgarren xedapen iragankorrekin, haien determinazioak bateraezina direlako 20/2021 Legean ezarritakoekin eta foru lege honek dakarren araudi berriarekin, zeinak ahalbidetzen baitu foru gaikuntza duten lanpostuak ohiko moduan betetzea, ez dadin berriz gertatu araudiarekin lotutako eragozpenen ondorioz abusuzko behin-behinekotasun egoerak sortzea.

Foru lege honen bitartez erantzuna ematen zaio eskakizun historiko bati eta behin betiko konpontzen da aldibaterakotasun iraunkorraren arazoa, duela hogeita hamar urte baino lehenago tik idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu askori eragiten diena Nafarroako toki entitateetan; zerbitzu erabat funtzionariala bermatzen da, gure Foru

Komunitateko herritarrek hurbilen dituzten administrazioetan zerbitzu publikoak behar bezala gauzatu eta emateko beharrezkoak eta funtsezkoak diren funtzio publikoetan aritzeko.

1. artikulua. Foru gaikuntza duten funtzionarioen arteko lehiaketa berezia lanpostuak betetzeko.

1. Foru lege honen 2. artikuluan araututako hautapen prozesuak egin aurretik, lanpostuak betetzeko lehiaketa berezia eginen da foru gaikuntza duten funtzionarioen artean.

Lehiaketa horien xedea izanen da merezimendu lehiaketaren bidez betetzea Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247.2 eta 247.3 artikuluetan jasorik badaude.

2. Horretarako, eta edozein kasutan 2022ko ekainaren 1a baino lehen, Nafarroako Gobernua Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako toki entitateetan hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen hasierako zerrenda eginen du, berriaz adierazita zeinek betetzen dituzten aldi baterako enplegua egonkortzeko baldintzak, Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarriak.

Hasierako zerrenda hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara jendaurreko informazioarako eta alegazioak aurkezteko, argitaratu eta biharamunetik hasita 20 egun naturaleko epean.

3. Aurreko apartatuan ezarritako epea amaitu eta, alegaziorik aurkezten bada, horiek aztertu ondoren, Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuak, lanpostuak betetzeko aipatu lehiaketan deialdia egin aurretik, funtzionario gaituentzat merezimendu lehiaketan eskainiko diren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen behin betiko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du. Berriaz adierazi behar da zein lanpostu hutsek betetzen dituzten aldi baterako enplegua egonkortzeko baldintzak.

4. Lanpostuak betetzeko lehiaketa berezietan parte hartzeari, hautapen epaimahaiei eta merezimendu-baremoen ezarpenari dagokienez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 249. artikuluan eta hurrengoetan arau orokor gisa ezarritakoa beteko da, alde batera utzi gabe foru lege honetan adierazitako berezitasunak.

Kontu-hartzaile lanpostuen kasuan, merezimendu lehiaketa berezian berariaz baloratuko da A taldeko kontu-hartzaile lanposturako gaikuntza lortu izana deialdi publikoan, txanda irekian, oposizio-lehiaketa bidez.

Kontu-hartzaile lanpostuak betetzeko lehiaketa berezirako deialdia eginen da behin amaitzen direnean mailaz igotzeko prozedurak, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen bosgarren xedapen iragan-korrean aipatzen direnak.

5. Merezimendu lehiaketa berezietan lanpostua lortzen dutenak foru lege honen 2. artikuluko C letran ezarritakoari jarraituz jabetuko dira lanpostuaz.

2. artikulua. Foru gaikuntza duten funtzionarioen artean lanpostuak betetzeko lehiaketa berezia egin ondoko hautapen prozesuak.

Behin amaituta foru gaikuntza duten funtzionarioen artean lanpostuak betetzeko lehiaketa bereziak, aurreko artikuluan araututakoak, Nafarroako Foru Komunitateak hurrengo hautapen prozesuetarako deialdia eginen du, eta prozesu horiek antolatzean beti bermatuko dira lehia librearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioak.

A. Deialdi bidez, txanda irekian, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez foru gaikuntza lortzeko hautapen prozesua.

Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuak izan eta lekualdatze lehiaketa bereziaren xede izanik lehiaketa horretan betetzen ez diren lanpostuak, ez baldin badaude aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuetan eskaini beharreko lanpostu hutsen zerrendan, esleituko zaizkie, Toki Administrazioaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak izendapena egin ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 245. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera txanda irekiko oposizio-lehiaketaren deialdian gaikuntza lortzen dutenei, albo batera utzi gabe arau hauetan ezarritako berezitasunak.

Oposizio eta lehiaketa faseek % 70eko eta %30eko balorazio proportzionala izanen dute, hurrenez hurren, ezertan galarazi gabe euskararen balorazio gehigarriko aplikatzekoa den araudian ezarritakoa.

B. Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuak.

B.1. Aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketa bidez egonkortzeko hautapen prozesua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko hautapen prozesu baterako deialdia eginen du. Prozesu horretan honako hauek sartu behar dira: Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak, egiturazkoak, lanpostuen zerrendan, plantillan edo giza baliabideak antolatzeko bestelako tresna batean egon zein ez egon, baldin eta 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan, gutxienez, aldi baterako okupatuta egon badira eta aurrekontuko zuzkidura badute.

2. Oposizio eta lehiaketa faseek % 60ko eta % 40ko balorazio proportzionala izanen dute, hurrenez hurren, ezertan galarazi gabe euskararen balorazio gehigarriko aplikatzekoa den araudian ezarritakoa.

Merezimenduen balorazioan kontuan hartuko dira, batez ere, Nafarroako toki entitateetako idazkaritza eta kontu-hartzailetzako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Oposizio faseko ariketak ez-kanporatzekoak izaten ahalko dira.

B.2. Luzaroko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko hautapen prozesua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak, behin bakarrik eta salbuespenez, merezimendu lehiaketaren bidezko hautapen prozesu baterako deialdia eginen du honako lanpostu hauek betetzeko: Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak, egiturazkoak, lanpostuen zerrendan, plantillan edo giza baliabideak antolatzeko bestelako tresna batean egon zein ez egon, baldin eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako okupatuta egon badira eta aurrekontuko zuzkidura badute.

Deialdian honako lanpostu hauek ere sartuko dira: Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak, egiturazkoak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako okupatu badituzte horrelako lan harremana duten langileek.

2. Merezimenduen balorazioan kontuan hartuko dira, batez ere, Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetan emandako zerbitzuak, albo batera utzi gabe euskararen balorazio gehigarriko aplikatzekoa den araudian ezarritakoa.

B.3. Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuetarako xedapen komunak

Enplegua egonkortzeko bi hautapen prozesuetan aplikatzekoak izanen dira arau hauek:

1. Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesuetarako deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira, eta prozesuak 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira.

2. Deialdien ebazpenak ezin izanen du inolaz ere gastu gehikuntzarik ekarri, ez eta idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu kopurua handitzerik ere.

3. Konpentsazio ekonomikoa emanen zaie aurreko apartatuetan arautzen diren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozesu berezietatik bat ere gaudituz ez eta ondorioz Nafarroako toki entitateekiko lan-harremana amaitzen zaien aldi baterako administrazio-kontratudun langileei: hogeai eguneko ordainsari finkoa zerbitzuan lan egindako urteko, urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuta eta hamabi hileko gehienez.

4. Enplegua egonkortzeko hautapen prozesuetan parte ez hartzeak ez du inolaz ere sortuko konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik.

5. Aldi baterako okupazio etengabearen kontzeptuari dagokionez, etenik ez dela izan ulertuko da baldin eta hiru hilabeteko epea iragan baino lehen lanpostua berriz okupatu bada eraginkortasunez.

C. Xedapen komunak A eta B apartatuetako hautapen prozesuetarako.

1. Artikulu honetan araututako hautapen prozesuak modu paralelo eta koordinatuan eginen dira. Deialdi bakarraren bidez edo zenbait deialdiren bidez antolatzen ahalko dira.

2. Eraginkortasun administratiboarekin lotutako arrazoiengatik, bat etorri Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin, egun berean jabetuko dira lanpostuaz 1. artikuluan aurreikusten diren merezimendu lehiaketa berezietan lanpostua adjudikatzen zaienak eta aurreko A eta B letretan aurreikusitako hautapen prozesuen ondorioz foru gaikuntza lortzen dutenak.

3. Hautapen prozesuetan parte hartu eta, gaudituz ez arren, deialdi bakoitzean nahikotzat jotzen den puntu kopurua lortzen dutenak administrazio-araubideko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan sartuko dira, Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetako eginkizunetan aritzeko, entitateok hala eskatzen dutenean.

Txanda irekiko oposizio-lehiaketaren deialditik eratortzen den izangai zerrendak lehentasuna izanen du aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozesutik eratortzen denaren aldean, eta azken horrek lehentasuna izanen du luzaroko aldi baterako enplegua merezimendu lehiaketaren bidez egonkortzeko salbuespeneko hautapen prozesutik eratortzen denaren aldean.

3. artikulua.

Aldatu egiten da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247. artikulua 2. apartatua. Hona testu berria:

“2. Lehiaketa horien xedea izanen da betetzea foru lege honetako 243.2, 244.2 eta 361.1.e) artikuluetan jasotzen diren lanpostuak, horiek hutsik daudenean. Lehiaketa horietarako deialdia hiru urtean behin eginen da gutxienez, foru lege honetako 245. artikulua aipatzen duen gaikuntza lortzeko deialdia onetsi aurretik.

Lehiaketa horietan honako hauek ere sartuko dira, albo batera utzi gabe foru lege honen 361.1.e) artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa:

a) Deialdia onesten den unean administrazio zerbitzuen batasunetan hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak.

b) 1.500 biztanletik beherako toki entitateetan eta 3.000 biztanletik beherakoetan, hurrenez hurren, hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, baldin eta toki entitate horiek beren plantilla organikoan lanpostu propioak badituzte deialdia onesten den unean.

c) Mankomunitateetan hutsik dauden kontu-hartzaile lanpostuak, baldin eta mankomunitate horiek beren plantilla organikoan lanpostu espezifikoak badituzte deialdia onesten den unean”.

4. artikulua.

Aldatu egiten da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 248. artikulua 1. apartatuko a) letra. Hona testu berria:

“a) Toki entitateei jakinaraziko die zeintzuk diren lanpostu huts gisa edo hutsik egoteko moduko gisa jotzen diren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak”.

5. artikulua.

Aldatu egiten dira Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru

Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 2.etik 5.era bitarteko apartatuak. Hona testua:

“2. Lehiaketa ebatzi eta gero, B taldeko gaikuntza baina A mailako titulazioa duten funtzionarioek betetzen dituzten B taldeko kontu-hartzaile lanpostuak A taldean sartzen ahalko dira; aurretik funtzionario horiek mailaz igo beharko dute toki entitate bakoitzaren esparrura mugatutako hautaprobak gaindituta, horretarako jarraikiz Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15.6 artikulua xedatzen duenari.

Maila-igoera horrek eta A taldeko kontu-hartzaile lanposturako izendapenak berekin ekarriko dute lanpostu horretako eginkizunetan aritzeko gaikuntza.

3. B taldeko funtzionario gaituek A taldeko kontu-hartzailearen gaikuntza lortua badute deialdi publikoan, txanda irekian, oposizio-lehiaketa sistemen bidez, automatikoki sartuko dira A taldean, aurreko apartatuak aipatzen duen aurretiazko maila-igoeraren beharrik izan gabe.

4. Toki entitateek behar diren jarduketak egiten dituzte beren plantilla organikoak aldatu eta egokitzeko, kontu-hartzaile lanpostuak A taldean sartze aldera.

5. Iraungi beharreko egoera pertsonal gisa mantenduko dira B taldeko kontu-hartzaile lanpostuak, baldin eta horietan dihardutenak badira Nafarroako Foru Komunitateak gaituriko funtzionarioak, A mailako titulaziorik ez dutenak edo bigarren apartatuak aipatzen dituen mailaz igozteko hautaprobak gainditu ez dituztenak”.

Lehen xedapen indargabetzailea. Lehena. Indargabetu egiten da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen laugarren xedapen iragankorra.

Bigarren xedapen indargabetzailea. Indargabetu egiten da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 6. apartatua.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kronikoen Planari eta Gizatiartzeko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kronikoen Planari eta Gizatiartzeko Planari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00064 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “Zer neurri konkretu burutu ditu Osasun Departamentuak eta zer emaitzarekin Kronikoen Plana eta Gizatiartzeko Planen inguruan?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Kronikoen Plana:

Plantillan erizainak gehitu izanari esker, Kronikoen Planari berriz ekin diote, pixkanaka, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalak.

Orain arte sartu diren erizainez gainera beste 44 sartuta, helburua da osasun etxe guztietan bultzatu eta bermatzea paziente kroniko eta pluripatologikoentzako arreta integratuaren estrategia.

Profesional horiek, Oinarrizko Osasun Laguntzako taldeetako gainerako kideekin batera, arreta pertsonalizatua emanen diete zainketa konplexuen beharra, mendekotasuna eta hauskortasuna dituzten pertsonen, eta prozesuan esku hartzen duten profesional guztiekin elkarlanean ariko dira, askotariko zerbitzuen irisgarritasuna eta integra-

zioa bermatzeko osasun arazo kronikoak eta konplexutasun handiko arriskua dituzten pertsonen.

Gizatiartzeko Plana

Osasun Departamentuak, Nafarroako osasun sistema publikoaren erabiltzaileek gizatasunezko tratuari buruz duten gogobetetze maila hobetu nahian, Nafarroako Osasun Sistema Publikoa Gizatiartzeko Plana abiarazi zuen.

Gizatiartze Planaren arabera, osasun sistema publikoaren esparru guztietan gizatiartze batzordeak sortu behar dira, osasun publikoko zerbitzu guztietan gizatiartze prozesuak garatu eta egiten dituztenak.

Hala, 2018. urtean Oinarrizko Osasun Laguntza Gizatiartzeko Batzordea sortu zen, prozesu hori gidatzeaz arduratu zedin, zuzeneko arretako profesionalekin eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzarekin elkarlanean eta haiek ere parte hartuta.

2018an eta 2019an gizatiartze ekintza batzuk egin ziren, Barne Plana garatuz. Besteak beste, honako hauek:

- Oinarrizko Osasun Laguntza Gizatiartzeko Estrategia.
- “Gizatiartze bidean aurrera eginez” jardunaldia.
- Gizatiartzeko Jardunbide Egokien errekonozimendua.
- Gizatiartzeko erreferenteak identifikatzea oinarrizko eskualdeetan.
- Lan jardunaldia erreferenteekin.
- Gizatiartzeko dekalogoak.

2020., 2021. eta 2022. urteetan gizatiartze plan horri lotutako ekintzak eta jarduketak garatzen jarraitu dugu.

– TRATU GOZOAREN LERROA

Hartu nahi genukeen tratua eman behar dugu, pertsonen osasun sistemarekiko harremanetan izan dezaketen ahultasuna aintzat harturik.

- Pertsonen arteko adeitasuna eta berotasuna sustatu eta hobetzea.

- o Profesionalen identifikazio pertsonala hobetzea.

- Laneko uniforme zuntzi dira osasun etxetako profesional guztiak.

- Profesionalentzako txartel adimendunen ezarpenerako taldeak berriz ekin dio lanari.

- o Egokitzapen kulturala. Ahal bezainbat egokitzea hautaturiko hizkuntzara.

- Kultura arteko urrutiko itzulpen zerbitzuak. Zerbitzu hori oinarritzko eskualdeetara hedatzen jarraitu dugu. Gaur egun 39 osasun etxek eta 47 kontsultategik dute zerbitzu hori.

- o Kultura arteko bitartekotza zerbitzua.

- Zerbitzu horrekin elkarlanean aritu gara berehalako eta presako ekintzetan, pandemiaren esparruan, ukitutako biztanle taldeekin.

- Sufritzen duenarekiko enpatia

- o Bizitzaren amaierako prozesuetan pazienteei eta haien familiei laguntza eta akonpainamendua eskaintzea, mina arinduz.

- Pandemiak eragindako murrizketak gorabehera, lanean aritu gara arlo horretan.

- o Erabakien aurretiazko planifikazioa hedatzea, eta aurretiazko borondateen agiria egin dadin sustatzea.

- Prozesu horretan aurrera goaz, eta gizarte langileek agiria egiteko eta erregistratzeko tramitazioa errazten dute.

- o Bizitzaren amaierako prozesuei buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzea profesionalei eta herritarrei.

- Eutanasiaren Legeari buruzko informazio saioa, Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuarekin lankidetzan.

- o Gizatiartze estrategia berariazkoak biztanle talde zaugarrientzat.

- Pertsona zaugarriekin harremanetan jartzea eta gizarte balorazio proaktiboa egitea pandemiaren lehen olatuetan, oinarritzat

harturik gertakari diagnostikoak, adina, bakarrik bizitzea, mendekotasuna...

- Gizarte egoera ahula izan eta COVID diagnostikoa jaso duten pertsonen eta haien familiei gizarte balorazio proaktiboa egitea. Zaugarritasun irizpideak Tableau tresnan: 80 urtetik gorakoa, bakarrik bizitzea, ELZ-ren erabiltzailea, TSI 001 farmazia-ekarpena, mendekotasun aitortua, desgaitasuna, jaiotza-herrialdea).

- Gizarte langile bat kontratatzea gizarte balorazioa egiteko, COVIDaren intzidentzia handiko oinarritzko eskualdeetarako indargarri gisa.

- Etxeko laguntzako udal zerbitzuek artatzen dituzten pertsonen identifikazioa historia klinikoan, eta erakunde horiekin koordinatzeko prozedura.

- Kolektiboari arreta ematea berehalako eta presako esku-hartzeetan, COVID agerraldietan, elkarlanean arituz Toki Administrazioarekin, entitate eta elkarrekin eta eragile komunitarioekin.

- Bultzada eta babesa ematea COVID mahai komunitarioetako elkarlanari, arreta berezia jarritz koordinazioan eta baterako jardunean.

- Pertsonalizatzea, eta erakundea paziente bakoitzari begira jartzea.

- o Egoera ahulean dauden pertsonentzako berariazko arreta.

- Aginte koadroan gizarte zaugarritasunaren adierazleak sartzeko, egoera ahulean dauden pertsonak detektatzen lagundu eta profesionalen esku-hartzea gidatu dezaten. Informazio Sistemekin eta Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuarekin elkarlanean.

- o Hitzorduak egokitzea pazienteen pilaketak saihesteko (erauzketak, ohiko jarduerak...)

- Ekintza hori beharrezkoa da pandemia garaian.

– INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO LERROA

Informazioa eta komunikazioa hobetzeko urratsa beharrezkoa da osasunerako ahaldundutza errazteko. Horrela, pertsonen kontrol handiagoa izanen dute beren osasunari eragiten dioten erabaki eta ekintzen gain.

- Profesionalentzako gizatiartze atal bat sortzea intranet sanitarioan.

– INGURUMENAREN EGOKITZAPENAREN LERROA

Gizatiartzearen egiazko kultura gara dadin, hura gauzatu ahal izateko baldintzak bete behar dira, eta gizatiartzeko aukera ematen duten inguruneak eduki behar dira.

o Irisgarritasuna indartzea.

- Guneen irisgarritasuna berrikustea. Azpiegiturak egokitzea, telefono lineak hobetzea.

o Osasun etxean profesional berriei abegi egitea.

- Osasun etxeetako gizarte langileei abegi egiteko agiria. Informazio protokolizatua. Agiria eskura egotea AUZOLANen, gizarte lanari buruzko atalean.

– KUDEAKETARAKO JARRAIBIDEEN LERROA

o Oinarrizko Osasun Laguntza gizatiartzeko batzordea sortzea.

- Batzordea berrosatzea, profesionalen aldaketa dela eta.
- Ekintzen egungo egoera berrikusi eta aztertzea.
- Osasun Departamentuko Gizatiartze Batzordeari informazioa ematea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, seigarren olatua kontrolatze aldera musukoa kanpoaldeetan eta segurtasun-distantzia gorderik ere erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, seigarren olatua kontrolatze aldera musukoa kanpoaldeetan eta segurtasun-distantzia gorderik ere erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00065) informazio hau eskatzeko: “Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak seigarren olatua kontrolatze aldera musukoa kanpoaldeetan eta segurtasun-distantzia gorderik ere erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruz?”. Hona

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Kanpoaldeetan musukoa erabili beharrari buruzko 30/2021 Errege Lege Dekretua 2021eko abenduaren 23an argitaratu zen.

Nafarroan, abenduaren 20tik 26ra bitarteko astean, 11.362 kasu baieztatu ziren PCR bidez edo antigeno bidez (100.000 biztanleko 1.760), aurreko astean baino% 135 gehiago. COVID-19 kasuen eta eragindako ospitalizazioen kopuruek igoera handia izan zuten. Adin guztietan egin zuen gora intzidentziak. Gehikuntza handiena 15-34 urte arteko gazteek izan zuten, bai eta intzidentzia handiena ere. Omikron aldaera Nafarroan analizatutako laginen % 42tan detektatu zen. Txertaketak COVIDaren zirkulazioa geldiarazteko izan zuten indarrari gailendu zitzaizkion transmisioa areagotzen duten faktoreak, hala nola hilabete hotzak iristea, gizarte harremanak ugaritzea, prebentzio neurriak lasaitzea eta, batez ere, omikron aldaera kutsakoragoaren etorrera.

Egoera horretan argitaratu zen abenduaren 27ko 63/2021 Foru Agindua, eta 01:00etatik 06:00etara itxi egin zituen ostalaritzako eta gau

aisiako establezimenduen jarduera, kultura jarduerak, jolas-aretoak, funtzio anitzeko guneak, elkarte gastronomikoak eta peñak, etxabeak, piperoak eta antzekoak. Ostalaritza establezimenduetako barnealdeetan bete beharreko arauak ere eman zituen, eta edukierari buruzko baldintzak ezarri zituen gizarte, kultura eta kirol ekitaldietarako.

52. astean, zazpi eguneko intzidentzia 51. astekoaren bikoitza izan zen, eta hurrengo bederatzi asteetan intzidentziak pixkanaka behera egin zuen.

Ezarritako prebentzio neurri murriztaile guztien sinergiak eragin zuen jaitsiera progresibo hori, olatuaren eboluzioarekin batera, gero eta biztanle gehiago immunizatuz joan baitziren, eta

txertaketaren estaldura gero eta zabalagoa ere gehituta.

Neurri zehatzek (kasu honetan musukoa kanpoaldeetan erabiltzeak) izandako eraginkortasunari buruzko ondorioak ateratzea zaila da, beste neurri batzuekin batera inplementatzeak kolinealtasuna eragiten baitu eta zaildu egiten baitu COVID-19aren transmisioan izandako aldaketa bakoitza neurri jakin bati egozte (eraginen identifikagarritasuna deitzen zaio horri)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Nafarroan COVID-19aren pasaporte erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan COVID-19aren pasaporte erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00066 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak COVID-19aren pasaporte erabiltzera behartzearen eraginkortasunari buruz?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroan zenbait tokitara sartu ahal izateko COVID pasaporte erabiltzera behartu aurretik, sektoreen, departamentuen eta autonomia erkidegoen arteko elkarlana egin zen, orduko egoera

epidemiologikoari egokitutako arau aldaketa zabalago bat modu koordinatuan antolatzeko. Gainera, aintzat hartu zen Osasun Departamentuak une oro erabili izan duen irizpidea, alegia, Foru Komunitatean COVIDari aurka egiteko salbuespenezko prebentzio neurriek ahalik eta eragin txikiena izan behar zutela herritarren bizitza sozialean, ekonomikoan eta emozionalean.

Otsailean jada ez zegoen COVID ziurtagiriaren beharrik Nafarroako barneagoko esparru batzuetan, esaterako jatetxeetan edo kultura guneetan. Izan ere, uste izan zen une hartan pandemiaren beste fase bat hasia zela, eta, gainera, tresna horrek bete zuela bere funtsezko helburua, hots, nafarrak immunizatzen bultzatu eta, horrenbestez, immunizazio ahalik eta handiena lortzea. Ildo horretan, hura indarrean egon zen bitartean 12.000 txerto baino gehiago jarri ziren Foremen egokitutako hitzordurik gabeko linean; bertan jarritako dosien batezbestekoa nabarmen handitu zen azaroan COVID pasaporte abian jarri eta gero. Aplikazio hori zaurgarritasun bereziko guneetan ere lehenetsi zen. Gure komunitateko biztanleriaren immunizazio ahalik eta handiena lortzeko helburuari dagokionez, azpimarratu behar da herritarren erantzun ona, dosiak inokulatzeko prozesu horretan Foru Komunitateko biztanleen % 90 txertatu baitziren, eta 560.000tik gora izan baitziren pautara osoa jaso zuten pertsonak txertaketa

estrategia horretan. Abenduko azken astean hasi zen, eta, mailaz maila eta arrisku eta zaurgarritasun irizpideen araberrako lehentasunekin, nahi izan duten Nafarroako biztanle guztiengana iritsi da. Zalantzarik gabe, pandemia geldiarazteko garrantzi handiko ardatz bat izan da. Bestalde, COVID pasaporteak beharrezkoa izaten jarraitu du nazioarteko eta mugaz gaindiko mugikortasunarekin zerikusia duten eremuetan, bai eta Europako hainbat herrialdeetako barne mugikortasunean ere.

Nafarroan 778.000tik gora COVID ziurtagiri eman dira, eta gehien-gehienak, 751.000, txertaketa ziurtagiriak izan dira. Pertsona bako-

tzak, jakina denez, behin baino gehiagotan deskargatu ahal izan du ziurtagiria arrazoi bat edo bestea dela eta; adibidez, ziurtagirian txertaketa-egoera eguneratzeko, jasotako dosien kopuruari dagokionez. Halaber, sendatu izanaren 13.000 ziurtagiri baino gehiago eta 12.000 proba diagnostiko baino gehiago zenbatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, ospitalez kanpoko larrialdien eta 112aren berrantolaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ospitalez kanpoko larrialdien eta 112aren berrantolaketari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-22/PES-00067 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

1- “Zer berrantolaketa egin gogo du Nafarroako Gobernuak 112an eta ospitalez kanpoko larrialdietan eta zer kronogramarekin?”

2- Koordinazioko eta/edo ospitalez kanpoko larrialdietako egungo plantillako zer mediku lanpostu kendu gogo duzue? Nola bermatuko duzue koordinazioko eta larrialdietako zerbitzua 20 mediku horiek gabe? Nola bermatuko duzue koordinatziotik eta ospitalez kanpoko larrialdietatik kendu gogo dituzuen mediku horiek Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan geratzea?”. Hona hemen

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

112an medikuak eta erizainak aritzen dira osasun arloko koordinazio lanetan, eta zehazturik daude bakoitzaren eginkizunak. Beste autonomia erkidego batzuetako beste koordinazio zentro batzuetan erizainen lanaren portzentajea handiagoa da. Horregatik, koordinazioko erizaintzaren figura indartzeko eta haren zerbitzu zorroa birdefinitzeko lanari ekin zaio, mediku portzentaje txikiagoaren beharra izan dezagun. Aldaketa hori egiteko, aldaketak egin behar dira larrialdiak kudeatzeko sistemari. Proiektua lantzen ari da eta 2023aren hasierarako burutzea aurreikusten da.

Iruñerriko ospitalez kanpoko larrialdiei dago kienez, hiriko osasun etxeetako medikuek San Martin eta Buztintxuriko osasun etxeetan txandak egiteko aukera planteatu da, bi helburu lortzeko: batetik, oinarrizko osasun laguntzako profesional larrialdi ertain-handietarako trebetasunei eustea, eta bestetik, larrialdietako profesionalak parte hartzea osasun etxeetan garatuago dauden arreta jarraiturako protokoloetan. Ez da aurreikusten mediku lanposturik kentzea; bestalde, estaltzen ari ez diren erretiroagatik bajak izanzen dira erizaintzako jarduerarekin ordeztzen joanen direnak, eta betiere oinarrizko osasun laguntzan jardutea lehenetsiko da, profesional berririk izaten bada.

Zerbitzua 112 indartsuagoetan bezala eskaintzeari dagokionez, erabiliko den erizaintzako zerbitzu zorroak ahalbidetuko du kalitatearen berme erabatekoarekin garatzea koordinazio eginkizunak. Esan bezala, ez da mediku jakinik lekuz aldatuko, aitzitik, mediku kopuru txikiagoaren beharra izanen da eta, hortaz, lanpostu berriak lehenatasunez osasun etxeetarako izanen dira,

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Nafarroako Amiantoari buruzko Planeko Departamentuarterko Batzordeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Amiantoari buruzko Planeko Departamentuarterko Batzordeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00068), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Amiantoari buruzko Planeko ekintzez. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Amiantoari buruzko Planeko Departamentuarterko Batzorderako lehenbiziko deialdia 2021eko azaroaren 30ean izan zen, eta beste bilera bat egin da aurtengo martxoaren 23an.

Departamentuarterko Batzordearen izendapena berez ez da formalizatu.

Egindako ekintzei dagokienez, Etxebizitzako zuzendari nagusiaren martxoaren 4ko 140/2022 Ebazpenak dirulaguntzen deialdia onetsi du

lehendik dauden eraikinetan birgaitze energetikoko jarduketak egiteko (SEM funtsak). Deialdi horietan “Amianto kentzeko laguntza” arautzen da: eraikin mailako birgaitze energetiko batean amianto duten elementuak kendu behar direnean, laguntzaren gehieneko zenbatekoa handitu ahal izanen da, amianto-hondakinak legez baimendutako enpresen bidez kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzearen kostuei dagokien kopuruan, gehienez 1.000 euro birgaitu beharreko etxebizitza bakoitzeko edo 12.000 euro eraikin bakoitzeko. Aipatu deialdia SEM funtsetarako deialdia da, eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 2. osagaien sartuta dago, C02.I01 inbertsioan, zeina urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak arautzen baitu (dekretu horrek etxebizitzak birgaitzeko eta etxebizitza sozialerako laguntza programak arautzen ditu). Deialdiak 3. programa garatzen du, hau da, “Eraikin mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa”.

Gainera, beste deialdi bat onetsiko da, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua bera garatuko duena. Zehazki, 1. programako edo “Auzo mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa”ko deialdia izanen da, eta laguntza berdinak banatuko dira (gehienez 1.000 euro etxebizitzako edo 12.000 euro eraikineko).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzundakion, Tracasa Instrumentalek Tracasa Globali

kontratututako lanei buruz (10-22/PES-00069). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak dituen eskumenen artean ez dago eskumenik enkarguak egiteari buruzko erabakietarako irizpideak eta esku hartzeko irizpideak zehazteko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

Galdera, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gutxiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gutxiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzundakion, Tracasa Instrumentalek Tracasa Globali kontratatutako lanei buruz (10-22/PES-00070). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Tracasa Instrumentalek Tracasa Globali 2020an eta 2021ean kontratatu dizkion 15.000 eurotik beherako lanak azaltzen dituen taula erantsi dut.

Eskatutako informazioari erantzunez, ez dago 15.000 eurotik beherako kontratazioak justifikatzen dituen txosten juridikorik, ez delako kontratazioaren arloko araudia aplikatu Tracasa Instrumentalen eta Tracasa Mercadoren arteko harremanetan.

Galderan aipatutako ekitaldietan hiru jokaleku desberdin izan ditugula ikus dezakegu:

– 2020ko ekainera arte, Tracasa Instrumentalek Tracasa Mercadori egindako azpikontratazioak ez dira egon kontratazio publikoaren arloko arauen pean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua babesean egon direlako. Izan ere, Tracasa Mercadori laguntza eskatuta egin diren lanak eguneroko funtzionamenduaren partetzat hartu dira.

– 2020ko ekainetik abendura bitartean, ez zegoenez lege aldaketarik kontratazioaren arloko araudia aplikatzen zienik Tracasa Instrumentalen eta Tracasa Mercadoren arteko azpikontratazioei, jarraitu da lege esparru indardunaren barnean jarduten: bitarte horretan egindako 15.000 eurotik beherako kontratazio guztiak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua babesean egon dira, zeinean araubide berezia ezartzen baita zenbateko txikiko kontratueterako. Artikulu horren arabera, kontratuaren tramitazioan nahikoa da faktura aurkeztea.

– 2021. urtean, betiere lege esparru indardunaren barnean, Tracasa Instrumentalek Tracasa Mercadori egindako azpikontratazioak ez dira egon kontratazio publikoaren arloko arauen pean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua babesean egon direlako, kontuan izanik artikulu horretan aldaketa egin duela 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen azken xedapenetako laugarrenak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

Año	OBJETO	IMPORTE
2020	Atención telefónica de carácter tributario y otros correspondiente al año 2021	14.433,00
2020	Evolución del Directorio Continuo de Población Residente de Navarra, DCPRNA	11.680,23
2020	Asistencia técnica para el despliegue de los modelos de Inteligencia artificial en la Amazon AWS y el procesado distribuido de la clasificación de las Nubes de Puntos LIDAR	9.794,03
2020	Elaboración de la "Cartografía de precisión del mapa Topográfico de Navarra a escala 1:500 (MTNa05) en el término municipal de Pamplona" - trabajos 2021	9.183,49
2020	Diseño, Desarrollo e Implantación del Registro de Planeamiento 1.0, para el Servicio de Ordenación del Territorio y Paisaje de la Dirección General de Medio Ambiente	9.151,11
2020	Asistencia técnica para la ejecución de la Campaña de Campo de los Trabajos de suelos Navarra en el año 2020, y la elaboración del Mapa de suelos y sus derivados en el año 2021	7.941,00
2020	Actualización del Mapa de Cultivos y Aprovechamientos de Navarra 2019 (MICA)	7.291,76
2020	Asistencia técnica para la ejecución de los Trabajos de suelos de Navarra año 2018	6.913,84
2020	Mantenimiento de los Sistemas de Información Geográfica de Transportes y de Carreteras para el año 2019	6.644,33
2020	Asistencia técnica para la aplicación del SIGPAC 2021 en Navarra	6.566,54
2020	Asistencia técnica para la aplicación del SIGPAC 2020 en Navarra	6.210,64
2020	Asistencia técnica en el control sobre el terreno de las ayudas financiadas por el FEAGA y por el FEADER dentro de la auditoría de certificación de las cuentas anuales del Organismo Pagador de la Comunidad Foral de Navarra durante el año 2020	5.518,12
2020	Ejecución del proyecto PLANTA durante el año 2020	5.477,70
2020	Labores de apoyo para la migración a Windows 10	5.344,94
2020	Actualización y soporte del mapa de fosas y coordinación con el fondo documental durante 2020	4.887,14
2020	Creas nuevas funcionalidades para el visor actual usando el API SITNA mejorando la matización y accediendo a las ordenaciones forestales históricas	4.797,45
2020	SIGIAN (Inventario de arqueología) - Migración a infraestructura de Gobierno de Navarra	4.691,52
2020	Mantenimiento de la Base de Datos de la Toponimia Oficial de Navarra para el año 2020	4.584,36
2020	Creación de una app para móviles android para consultar la navegabilidad por la red de transporte terrestre de la Comunidad Foral de Navarra	4.225,79
2020	Creación de una página web para la comparación de ortografías	4.189,08

Año	OBJETO	IMPORTE
2020	Evolución del visor web de la Toponimia de Navarra para el año 2020	4.163,02
2020	Mantenimiento SIG de Carreteras y Transportes de Navarra año 2020	4.023,33
2020	Consultoría técnica para el establecimiento de los parámetros y rangos de valores en el ajuste de modelos de detección de omisiones catastrales a través de modelos de inteligencia artificial	4.019,85
2020	Mantenimiento y soporte de las aplicaciones que soportan la gestión del servicio de Riqueza Territorial y Tributos Patrimoniales durante el año 2020	3.990,50
2020	Asistencia técnica para la elaboración de los Planes de Acción contra el ruido de la Aglomeración Urbana de la Comarca de Pamplona, correspondiente a la tercera fase de aplicación de la Directiva 2002/49/CE, de 25 de junio de 2002, sobre evaluación y gestión del ruido ambiental	3.943,51
2020	A.T. Operadora de drones. Horas técnico TI y Subcontratas	3.696,99
2020	Actualización y mantenimiento del callejero de Navarra durante el año 2020	3.106,07
2020	Asistencia Técnica para el despliegue en la infraestructura tecnológica del Gobierno de Navarra del software que permita la publicación de conjuntos de datos espaciales conforme a la Directiva INSPIRE	2.840,28
2020	Asistencia técnica para el Sistema de información ambiental de Navarra 2020	2.660,04
2020	Mantenimiento de los Sistemas de Información Geográfica de Transportes y de Carreteras para el año 2018	2.521,89
2020	Asistencia técnica y consultoría en el ámbito de imágenes multiespectrales y establecimiento de los criterios de calidad en los diferentes niveles de procesamiento	2.321,94
2020	Acuerdo de concentración parcelaria de la zona de Rocafort	2.016,54
2020	Desarrollo y mantenimiento del Sistema de información territorial y urbanística de Navarra	1.837,72
2020	Actualización de catastro, elaboración de informes y certificados preceptivos para la inscripción en los Registros de la Propiedad correspondientes de las parcelas de la Comunidad Foral de Navarra adscritas al Departamento de Cohesión Territorial	1.620,42
2020	Mantenimiento evolutivo del Sistema Integrado de Población de Navarra (SIPNA) durante 2019	907,43
2020	Mantenimiento Ordenación Forestal (Geodatabase) 2020	561,97
2020	Digitalización y mantenimiento de la información geográfica del SIG de Transportes para el ejercicio de 2020	280,98
2020	Labores de apoyo para el despliegue de la aplicación de partes de trabajo	100,83
2020	Preparación de oferta para la licitación del "Servicios de Fotogrametría, Cartografía y Topografía para el Área de Gobierno de Desarrollo Urbano del Ayuntamiento de Madrid"	99,66

Año	OBJETO	IMPORTE
2020	Evolución del visor web de la Toponimia de Navarra para el año 2020	4.163,02
2020	Mantenimiento SIG de Carreteras y Transportes de Navarra año 2020	4.023,33
2020	Consultoría técnica para el establecimiento de los parámetros y rangos de valores en el ajuste de modelos de detección de omisiones catastrales a través de modelos de inteligencia artificial	4.019,85
2020	Mantenimiento y soporte de las aplicaciones que soportan la gestión del servicio de Riqueza Territorial y Tributos Patrimoniales durante el año 2020	3.990,50
2020	Asistencia técnica para la elaboración de los Planes de Acción contra el ruido de la Aglomeración Urbana de la Comarca de Pamplona, correspondiente a la tercera fase de aplicación de la Directiva 2002/49/CE, de 25 de junio de 2002, sobre evaluación y gestión del ruido ambiental	3.943,51
2020	A.T. Operadora de drones. Horas técnico TI y Subcontratas	3.696,99
2020	Actualización y mantenimiento del callejero de Navarra durante el año 2020	3.106,07
2020	Asistencia Técnica para el despliegue en la infraestructura tecnológica del Gobierno de Navarra del software que permite la publicación de conjuntos de datos espaciales conforme a la Directiva INSPIRE	2.840,28
2020	Asistencia técnica para el Sistema de información ambiental de Navarra 2020	2.660,04
2020	Mantenimiento de los Sistemas de Información Geográfica de Transportes y de Carreteras para el año 2018	2.521,89
2020	Asistencia técnica y consultoría en el ámbito de imágenes multispectrales y establecimiento de los criterios de calidad en los diferentes niveles de procesamiento	2.321,94
2020	Acuerdo de concentración parcelaria de la zona de Rocafort	2.016,54
2020	Desarrollo y mantenimiento del Sistema de información territorial y urbanística de Navarra	1.837,72
2020	Actualización de catastro, elaboración de informes y certificados preceptivos para la inscripción en los Registros de la Propiedad correspondientes de las parcelas de la Comunidad Foral de Navarra adscritas al Departamento de Cohesión Territorial	1.620,42
2020	Mantenimiento evolutivo del Sistema Integrado de Población de Navarra (SIPNA) durante 2019	907,43
2020	Mantenimiento Ordenación Forestal (Geodatabase) 2020	561,97
2020	Digitalización y mantenimiento de la información geográfica del SIG de Transportes para el ejercicio de 2020	280,98
2020	Labores de apoyo para el despliegue de la aplicación de partes de trabajo	100,83
2020	Preparación de oferta para la licitación del "Servicios de Fotogrametría, Cartografía y Topografía para el Área de Gobierno de Desarrollo Urbano del Ayuntamiento de Madrid"	99,66

Galdera, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gehiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tracasa Instrumentalek 2020an eta 2021ean Tracasa Mercadori 15.000 euro baino gehiagoko balioarekin kontratatutako lanei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun

dakion, Tracasa Instrumentalek Tracasa Globali kontratatutako lanei buruz (10-22/PES-00071). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Tracasa Instrumentalek Tracasa Globali 2020an eta 2021ean kontratatu dizkion 15.000 eurotik gorako lanak azaltzen dituen taula erantsi dut.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

Año	OBJETO	IMPORTE	CLIENTE GN	Mes inicio subcontratación
2020	Asistencia técnica para el mantenimiento del Sistema de Información Territorial de Navarra -SITNA- durante Mantenimiento y operación de sistemas del Servicio de Riqueza Territorial y Tributos Patrimoniales, correspondientes al año 2020	94.785,54	SI	Enero
2020	Aerotriangulación, modelos digitales de elevaciones y realización de la ortofotografía básica de 25 cm/pixel de todo el territorio de la Comunidad Foral de Navarra con vuelos realizados entre los años 1992 y 1996. Mejora y corrección de los datos gráficos y alfanuméricos de la red de comunicaciones multi-modal navegable en todo el territorio de la Comunidad Foral de Navarra.	59.515,48	SI	Enero
2020	Control de calidad del vuelo fotogramétrico digital de 22cm/pixel realizado por el Instituto Geográfico Nacional (IGN), apoyo de campo, aerotriangulación, modelos digitales de elevaciones y realización de la ortofotografía básica de 25cm/pixel de todo el territorio de la Comunidad Foral de Navarra. Digitalización, georreferenciación e incorporación a la fototeca de los negativos de vuelos históricos de diferentes fechas y escalas del territorio de la Comunidad Foral de Navarra. Vuelo fotogramétrico digital oblicuo de 8 cm/pixel, apoyo de campo, aerotriangulación, clasificación de datos Lidar, generación de modelos digitales de elevaciones y realización de la ortofotografía verdadera de 10cm/pixel de la zona del término municipal de Pamplona y ámbito de la Comarca de Pamplona en el año 2020. Digitalización, georreferenciación e incorporación a la fototeca de los negativos de vuelos analógicos pertenecientes al primer ciclo de actualización de la cartografía a escala 1:5.000 realizados entre los años 1992 y 1996 en el ámbito territorial de la Comunidad Foral. Vuelo fotogramétrico digital de 35 cm/pixel, apoyo de campo, aerotriangulación, modelos digitales de elevaciones y realización de la ortofotografía básica del 25 cm/pixel de todo el territorio de la Comunidad Foral de Navarra en el año 2019.	44.088,26	SI	Febrero
2020	Trabajos para la creación de una red de comunicaciones multimodal navegable en todo el territorio de la Comunidad Foral de Navarra en el año 2019. Aerotriangulación, modelos digitales de elevaciones y realización de la ortofotografía básica de 30 cm/pixel de todo el territorio de la Comunidad Foral de Navarra con vuelos realizados entre los años 1987 y 1991. Digitalización, georreferenciación, e incorporación a la Fototeca de los negativos de vuelos analógicos, aerotriangulación, modelos digitales de elevaciones y realización de la ortofotografía básica de 25cm/pixel de todo el territorio de la Comunidad Foral de Navarra.	41.842,85	SI	Enero
2020	Publicación productos derivados del LIDAR de la superficie total de la Comunidad Foral de Navarra	32.463,30	SI	Enero
2020	Colaboración y apoyo tributario a determinados Ayuntamientos que así lo han solicitado correspondientes a	25.980,85	SI	Enero
2020	Desarrollo y mantenimiento del Sistema de información territorial y urbanística de Navarra 2020	25.249,66	No	Enero
2020	Homogeneización de imágenes multispectrales	22.670,55	SI	Marzo
2020	Asistencia técnica para la ejecución de los Trabajos de suelos de Navarra			

Galdera, COVID txertoaz gogorarazteko eta horretarako hitzordua eskaintzeko telefono-deiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID txertoaz gogorarazteko eta horretarako hitzordua eskaintzeko telefono-deiei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00072), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: "Zer langileren bidez egin ditu Departamentuak COVID txertoaz gogorarazteko eta horretarako hitzordua eskaintzeko telefono-deiak?...". Hona horri buruz Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.- Osasun Departamentuak COVIDaren kontrako txertaketa kanpainaren hasieran call center bat sortu zuen, Oinarrizko Osasun Laguntzaren menpekoa, txertaketa prozesuko beharrian eta gorabehera guztiak kudeatzeko.

Jarduera horretarako aurreikusitako langileak epealdi administratibo osoan zehar kontratatu

dira. Zerbitzu horretan taldeko arduradun bat dago txanda bakoitzeko, eta berak koordinatzen ditu zereginak.

2.- Zenbat kontratazio egin dira eginkizun horretarako eta zer profil profesionalekin? Zein izan da kostua, guztira?

2021ean kontratatutako langile kopurua pandemiaren eboluzioarekin batera aldatu da. Batez beste 36 administrari izan dira, horien kostua 1.320.118 euro izan da guztira, eta horietatik 304.118 euro gizarte segurantzaren kostuari dagozkie.

2022an, gaur arte, profesionalen kopurua 36 eta 12 bitartekoa izan da. Gaur egun 12 profesional ditugu. Batez beste 22 profesional izan ditugu, horien kostua 205.714 euro izan da guztira, eta zenbateko horretatik 47.472 euro gizarte segurantzaren kostuari dagozkie.

3.- Kanpoko enpresaren bat kontratatu al da eginkizun horretarako? Baiezkoan, zer enpresa eta zein izan da kostua?

Ez da kanpoko enpresarik kontratatu, langile kontratatuek egin dute lana une oro.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Iruñeko gizarte-zerbitzuetako zentroaren balizko finantzaketa aztertzeke eratu den lantaldeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko gizarte-zerbitzuetako zentroaren balizko finantzaketa aztertzeke eratu den lantaldeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Iruñeko gizarte zerbitzuetako zentroaren balizko finantzaketa aztertzeke eratu den lantaldeari buruz (10-22/PES-00074). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Noiz eratu zen lantalde hori?

2022ko otsailaren 10ean

Nork osatzen du?

Eskubide Sozialetako Departamentuaren aldetik:

Andrés Carbonero jauna, Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia.

M^a Dolores Gutiérrez andrea, Oinarrizko Laguntzaren eta Gizarteratze-lanaren Zerbitzuko zuzendaria

Iruñeko Udalaren aldetik:

Olivia Elizari andrea, Gizarte Zerbitzuetako Alorreko zuzendaria

Jesus María Pascal jauna, Alorreko idazkari teknikoa.

Zenbat bilera izan dira galdera hau egiten den egunera arte?

Bi bilera: lantaldea eratzekoa, otsailaren 10ean, eta azkena, apirilaren 5ean.

Lantalde horren bilkuren deialdi, gai-zerrenda eta akta guztien kopia eskatzen dut.

Ez da bilkuren aktarik egin. Beraz, aztergaiei eta erabakiei buruzko informazioa emanen dut:

Lehenbiziko bileran, lantaldeak aztertu beharreko puntuak eztabaidatu ondoren, erabaki zen bi gai izanen zirela lanaren ardatz: zentroaren finantzaketari buruzko azterketa juridikoa eta zentroaren egiturari eta osaerari buruzko azterketa teknikoa.

Lehen gaiari dagokionez, Eskubide Sozialetako Departamentuak adierazi zuen Iruñeko gizarte zerbitzuetako zentroaren finantzaketa arautzeari buruzko txosten juridiko baten beharra zegoela, eta hura eskuratutakoan hurrengo bilerarako deialdia eginen zuela. Udalak adierazi zuen bazuela gaiari buruzko txosten propio bat.

Bigarren gaiari buruz ez zen ezer erabaki berariaz.

Eskubide Sozialetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren txostena eskuratu ondoren, hurrengo bilerarako deialdia egin zen. Bilera horretan berriz heldu zitzairen aurrekoan aztertutako bi gaiei. Departamentuaren txostena helarazi zitzairen Udalaren ordezkariari, eta hura berrikusi ondoren beren txosten juridikoa igor zezatela eskatu zitzairen. Udalaren ordezkariak adierazi zuten beren txostena zabalagoa zela gizarte zerbitzuetako zentroari buruzkoa baino, eta txosten espezifikokoago bat egiteko eskatu behar zirela udal zerbitzu juridikoei.

Hau erabaki zen: behin txosten hori jasotakoan, bi aldeetako zerbitzu juridikoei aztertuko zituztela finantzaketa gauzatzeko moduari buruzko ikuspuntu guztiak.

Alderdi teknikoari dagokionez, zentroa osa zezaketean hiru lantaldeetan zenbat pertsona zeuden galdetu zitzaion Udalari, eta zer eginkizun zituzten, eta arretaren adierazleren batzuk ere eskatu zitzaizkion, Departamentuak aztertu ahal izan zezan ea egungo udal egitura gizarte zerbitzuetako zentrotzat har daitekeen ala ez.

Departamentuak jakinarazi zuen gizarte zerbitzuetako zentroak arautzeari ekinen zaiola Gizarte Zerbitzuetako Oinarrizko Laguntzaren berrantolaketa esparruan.

Azkenik, egutegi hau ezarri zen:

- Apiril-maiatz aldera, finantzaketaren alderdi juridikoei buruzko kontsentsua ezartzea.

- Maiatzean, konklusioak Udaleko eta Foru Gobernuako arduradun politikoei helaraztea.

- Apiriletik urrira bitartean, zentroaren egitura eta osaera zehaztea, oinarrizko laguntzaren berrantolaketaren esparruan.

- Urrian, zentroa 2023an finantzatzeko zenbatekoa kalkulatzeko, eta, kasua bada, horretarako partida bat gehitzea Eskubide Sozialetako Departamentuaren 2023ko aurrekontuan.

- 2023ko urtarril-otsail aldera, zentroa sortzeko eta finantzatzeko hitzarmena sinatzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Osasungintzako langileei menperakuntza kimikoaren kasu susmagarriak atzemateko prestakuntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasungintzako langileei menperakuntza kimikoaren kasu susmagarriak atzemateko prestakuntzari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak 10-22-PES-00075 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutzekoa, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: “

- Osasunbideko ospitaleetako eta ospitalez kanpoko larrialdietako langileek ba al dute prestakuntzarik menperakuntza kimikoaren kasu susmagarriak detektatzeko?

- Ba al da jarduketa-protokolorik menperakuntza kimikoaren kasuetarako edo halakorik izan dela susmatzen denerako, kasu horiek konfirmatzeko neurriak garatzeko eta epaileari helarazteko? Hala bada, zein da protokoloa?

- Halako kasuetarako jarduketa-protokolorik ez badago, zer prozedura jarraitzen da biktimen arreta bermatzeko eta legearen arabera erabili ahal izateko ebidentziak biltzeko?”. Hona hemen Nafarroako

roako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

- Osasunbideko ospitaleetako eta ospitalez kanpoko larrialdietako langileek ba al dute prestakuntzarik menperakuntza kimikoaren kasu susmagarriak detektatzeko?

Guk dakigula, orain arte ez da berariazko prestakuntzarik izan inongo esparrutan.

Izan da emakumeen kontrako indarkeria detektatzeko prestakuntza.

- Ba al da jarduketa-protokolorik menperakuntza kimikoaren kasuetarako edo halakorik izan dela susmatzen denerako, kasu horiek konfirmatzeko neurriak garatzeko eta epaileari helarazteko? Hala bada, zein da protokoloa?

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko eta García Orcoyen Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan badute jarduketa-protokoloa.

Reina Sofía Ospitalean badute emakumeen kontrako indarkeriaren eta/edo sexu erasoaren aurrean jarduteko prozedura, eta laster eguneratu egingen da, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Larrialdietako algoritmoaren moldaera bat ezarritik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

(Oharra: Emakumeen kontrako indarkeriaren eta/edo sexu erasoaren aurrean jarduteko aipatu prozedura foru parlamentariaren eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

